

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

23. zenbakia

Data 2007-02-01

2788 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

Urtarrilaren 22ko 35/2007 FORU AGINDUA, hidrokarburoaren gaineko zerga eta beste kuota batzuk zati bat itzultzeko prozedura ezartzeari buruzkoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA

Urtarrilaren 22ko 35/2007 FORU AGINDUA, Hidrokarburoen gaineko Zerga eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren tasa autonomikoaren aplikazioari dagozkion kuotak zati batean itzultzeko prozedura ezarri, eta zerga bereziei buruzko martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan izendapen konbinatuko kodeei egiten zaizkien erreferentziak eguneratzen dituen.

Estatuaren esparruan, zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legeak hainbat aldaketa sartu ditu, gasolio profesionalaren kontsumoarekin lotuta, zerga berezietan eta zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergan. Horrela, orain eskubidea aitortzen da erabilera orokorreko gasolioaren gainean ordaindu edo jasandako Hidrokarburoen gaineko Zerga zati batean itzultzeko baldin eta ibilgailu jakin batzuetako motorrean erregai bezala erabili bada. Era berean, aitortzen da ibilgailu horien titularrek eskubidea dutela zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergan erabilera orokorreko gasoliorako aurreikusita dagoen karga tasa autonomikoa osorik zein zati batean berreskuratzeko. Orobat, aipatutako legeak dio zergaren kudeaketari berez dagozkion zereginak Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren esku jarraitzen duten artean, agentzia horrek egingo duela lurralde erkidean itzulketa, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak erabakitzen duen prozedurari jarraiki.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 33. artikuluan ezartzen duenez, Zerga Bereziak itundutako tributuak dira, Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatuko direnak. Artikulu horretan jasotzen denez, haien sortzapena Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen denean, foru aldundiek ordainaraziko dituzte zerga bereziak. Arrazoi hori dela-eta, urtarrilaren 9ko 1/2007 Foru Dekretu Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 10/2006 Errege Lege-Dekretuan eta estatuan onartutako 36/2006 eta 42/2006 Legeetan jasotako zerga neurrietara egokitzen duenak, itzulketa partzialaren prezeptua txertatu du, erabilera profesionaleko gasolioari dagokionez, zerga berezien foru araudian (3.bi artikulua).

Ekonomia Itunaren 34. artikulua, bere aldetik, dio Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga ere tributu itundua dela eta Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta arautuko dela. Era berean, ezartzen du zerga ordainaraztea foru aldundiei dagokiela jendaurreko txikizkako saltokia euskal lurraldean dagoenean. Nahiz eta Gipuzkoako Lurralde Historikoa ez den existitzen zerga honengatik aplikagarri den karga tasa autonomikorik, lurralde honetan zergaren kudeaketa Foru Aldundi honen eskumena denez, Aldundi honi dagokio zerga helbidea Gipuzkoan duten eta itzulketarako eskubidedunak diren onuradunei zerga itzultzea gasolioa karga tasa autonomikoren bat aplikagarri duten autonomia erkidegoetan hartzen badute.

Bai martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzekoak, eta bai martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergarenak, baimena ematen diote Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuari behar diren xedapenak onar ditzan aipatutako itzulketak garatu eta aplikatzeko.

Hortaz, Hidrokarburoen gaineko Zerga zati batean itzultzeko eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren tasa autonomikoa osorik edo zati batean bueltatzeko, beharrezkoa da itzulketa horiek gauzatzeko prozedura ezartzea.

Prozedura horren barruan, norbere kontsumorako instalazioen titularrek egindako gasolio erosketak eta ibilgailu baimenduei instalazio horietan egindako horniketak eraginkorki kontrolatu ahal izan daitezten, beharrezkoa gertatzen da instalazio horiek Zerga Berezien Erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuak 40. artikuluan aipatzen duen erregistroan inskribatzea.

Bestalde, Europako Batzordearen 1.549/2006 Erregelamendua, 2006ko urriaren 17koak, Kontseiluaren 1987ko uztailaren 2.658/87 Erregelamendua (EEE) aldatu du, Arantzel eta Estatistiken nomenklaturari eta aduanetako arantzel bateratuari buruzkoa, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. I. eranskinean sartu dira aldaketak.

2.658/87 Erregelamenduan egindako aldaketak «38 23» eta «38 24» partidetan sartuta dauden kodeak aldarazi ditu, eta horrek beharrezkoa egiten du martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzekoak, arantzel eta estatistiken nomenklaturako kodeak aldatzea, hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboari lotuta daudenez gero, zerga berezien harmonizazioari buruz Europan onartu diren zuzentarauetan ezarritakoarekin bat. Horretarako, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzekoak, 18.2 artikuluan dio izendapen konbinatuaren egiturari aldaketarik badago lege horren testuan NC kodeei egindako erreferentziak Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuak eguneratuko dituela.

Hori dela eta, honako hau,

XEDATU DUT

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak honako kasuotan izango du eskumena alta, baja eta aldaketa aitortpenak tramitatzekeo gasolio profesionalaren onuradunen erroldan, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzekoak, 52 bis artikuluko 7.a) apartatua aipatutakoan:

a) Onuradunak Espainian egoiliarak badira, zerga helbidea Gipuzkoan dutenean Ekonomia Itunean ezarritako arauen arabera.

b) Onuradunak ez badira Espainian egoiliarak eta egoitza edo establezimendu iraunkorra Europar Batasuneko beste estatu batean badute, identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko izapideak Foru Aldundiari dagozkionean eta izendaturiko ordezkari fiskalaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

2. Norbere kontsumorako instalazioetan egiten diren gasolio profesionalaren horniduren zerrenda Foru Aldundiari aurkeztuko zaio, establezimenduaren titularrak Gipuzkoan duenean zerga helbidea.

3. Urteko aitortpena, erroldaturiko ibilgailu bakoitzak urte osoan eginiko kilometroen kopurua barne, Foru Aldundiari aurkeztuko zaio itzulketarako eskubidea duen onuraduna Gipuzkoako erroldan inskribaturik dagoenean.

2. artikulua. Definizioak.

Foru agindu honen ondorioetarako, definizio hauek ezarri dira:

1. «Itzulketaren oinarria». Hidrokarburoen gaineko Zerga. Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzekoak, 52 bis artikuluko 5. apartatua aipatzen dituen koefiziente zuzentzailetariko bat erreferentzia aldiari interesatuak ibilgailu baimenduetan erregai gisa erabiltzeko erositako gasolio bolumenarekin biderkatzearen emaitza da, mila litrokotan adierazia, bioerregaiekin egindako nahasketetan ageri dena ere kontuan hartuta.

2. «Itzulketaren oinarria». Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zerga. Artikulu honetako 14.b) apartatua aipatzen den itzulketa tasa finkatu duen Autonomia Erkidego bakoitzari dagokionez, itzulketaren oinarria izango da autonomia erkidego bakoitzean interesatuak ibilgailu baimenduetan erregai gisa erabiltzeko erositako gasolio bolumena, mila litrokotan adierazia.

3. «Gasolio profesionalaren ondorioz itzulketak jasotzen dituzten onuradunen eta euren ibilgailuen errolda». Hidrokarburoen gaineko Zerga zati batean berreskuratzeko eskubidea duten ibilgailuen titularren errolda da, Zerga Bereziei buruzko 20/1998 Foru Dekretuaren 52 bis artikuluan aipatzen denaren arabera, bai eta Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren tasa autonomikoa zati batean edo osorik berreskuratzeko eskubidea dutenena ere, Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legeak 9. artikuluko sei bis apartatua jasotakoaren arabera.

4. «Gasolio profesionalaren norbere kontsumorako instalazioen errolda». Artikulu honetako 9. apartatua aipatzen diren instalazioen errolda da.

5. «Itzulketaren gehieneko zenbatekoa». Artikulu honetako 1. eta 2. apartatuetan definitutako itzulketa oinarriekin bat eginez, gehienez ere 50.000 litroko kontsumoari dagokiona, ibilgailu eta urte bakoitzeko. Taxien kasuan, itzulketaren gehieneko zenbatekoa ez da 5.000 litrokoa baino handiago izango taxi eta urte bakoitzeko.

6. «Entitate emailea». Ordainbideak emateari buruzko araudia betez eta zerga Administrazioak alde aurretik baimendurik, gasolio profesionaleko txartela ematen duen pertsona edo entitatea da.

7. «Gasolio profesionala». Artikulu honetako 16. apartatua aipatzen diren ibilgailu baimenduek erabiltzen duten erabilera orokorreko gasolioa da, baita bioerregaiekin nahasturik dagoenean ere.

8. «Itzuli beharreko kuotak». Hidrokarburoen gaineko Zergarenak, 20/1998 Foru Dekretuaren 52 bis artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergarenak, Zerga, Administrazio de Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legeak 9. artikuluko sei bis apartatuan xedatutakoaren arabera.

9. «Norbere kontsumorako instalazioa». Erabilera orokorreko gasolioa jasotzen duen establezimendua, ondoko honetarako bakarrik baimenduta dagoena: Erregaiak Jarduera eta Establezimendu Kodearen kontura jasotzeko (aurrerantzean JEK) eta norbere kontsumorako instalazioen titularraren ibilgailuak instalazio berean hornitzeko. Norbere kontsumorako instalazioak uztailearen 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuak, Zerga Berezien Erregelamendua onartzen duenak, 40. artikuluan aipatzen duen erregistroan inskribatu behar dira.

10. «Txikizkako saltokia». Erabilera orokorreko gasolioa jendeari saldu eta zuzenean kontsumitzeko instalazio finkoak dituen establezimendua, horretan aritzeko baimenduta dagoena petrolio produktuen merkataritza arloan indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

11. «Erreferentzia aldia». Hiruhileko naturala.

12. «Gasolio profesionaleko txartela». Zordunketa, kreditu edo erosketa txartela da, zerga Administrazioak itzulketaren xede den gasolio erosketaren berariazko ordainbide gisa baimendu duena. Bertan adierazten den ibilgailu baimendua hornitzeko bakarrik balio du. Txartelak «gasolio profesionala» esapidea erakutsiko du ongi ikusteko moduan.

13. «Erregai mota». Foru agindu honetan ezarritakoagatik establezimenduek eman beharreko informazioaren ondorioetarako eta horniduren zerrendei begira, erregai mota hiru digituz identifikatuko da. Digitu horiek erregaiaren biodiesel portzentajea adieraziko dute, eta portzentaje hori bolumenean ehuneko 5etik gorakoa denean unitatera biribilduko da.

14. «Itzulketa tasak». Honako hauek izango dira:

a) Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez, 20/1998 Foru Dekretuaren 52 bis.6.a) artikuluan aipatzen dena.

b) Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari dagokionez, kasuan kasuko autonomia erkidegoak, Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen 9 Sei bis. 6.a) artikuluan jasotakoaren arabera, finkatua duena.

15. «Ibilgailu baimenduaren titularra». Foru agindu honen ondorioetarako, ibilgailu baimenduaren titularra garraio alorreko agintari eskudunen erregistroetan ageri den pertsona edo entitatea izango da edo, horrelakorik ezean, trafiko, bide segurtasun eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan eskumena duten agintarien erregistroetan ageri dena, dagokionaren arabera.

16. «Ibilgailu baimendua». Honako hauek dira ibilgailu baimenduak:

a) 20/1998 Foru Dekretuaren 52 bis artikuluan Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketarako ezarrita dauden baldintzak betetzen dituzten ibilgailuak.

b) Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen 9.sei bis artikuluan Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren itzulketarako ezarrita dauden baldintzak betetzen dituzten ibilgailuak.

3. artikulua. Gasolio profesionalaren ondorioz itzulketak jasotzen dituzten onuradunen eta euren ibilgailuen errolda.

1. Ibilgailuen titularrei foru agindu honetan aipatzen diren zergen itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen zaie baldin eta, ibilgailuen motorretan gasolio profesionala kontsumitu aurretik, itzulketarako onuradunen erroldan inskribaturik badaude.

2. Errolda horretan inskribatzeko, eskaera bat aurkeztu beharko da, dela paperezko euskarrian, foru agindu honetan eranskin gisa ageri den ereduari jarraikiz, dela Internet bidez.

Aurreko 1. apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, zergen itzulketarako onuradunak Espainian egoiliarak ez badira, baina Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza edo establezimendu iraunkorra badute, Espainian lortu beharko dute Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Kasu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuarekin harremanak izateari begira, Gipuzkoan helbideratuta dagoen ordezkari bat izendatu beharko dute eta eskaeran haren IFZ adierazi.

a) Erroldan inskribatu, zerbait aldatu edo baja hartzeko, ezinbesteko baldintza izango da eskaeran honako hauek adieraztea:

1. Eskatzailearen IFZ.

2. Ez-egoiliarak izanez gero, itzulketaren titularrak duen ordezkari fiskalaren IFZ.

3. Jarduera zein egunetan hasi den, eta hala badagokio, baja noiz eman zaion.

4. Entitate finantzarioaren identifikazioa eta itzulketak transferitzeko erabiliko den bankuko kontuaren kodea, IBAN formatuan. Nazioarteko kontu korrronteak izanez gero, SWIFT kodea jarriko da.

b) Horrez gain, ibilgailu bakoitzeko honako hauek adierazi beharko dira:

1. Gasolio profesionala kontsumituko duen ibilgailuaren matrikula.

2. Europar Batasuneko zein estatutan matrikulatu den ibilgailua.

3. Ibilgailuaren jarduera noiz hasi den eta, hala badagokio, noiz amaitu den.

4. Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak Espainian matrikulatuta daudenean eta araudiak Garraio Txartela edukitzea exijitzen dienean, txartelaren zenbakia eta ibilgailuari baimendutako gehieneko masa adieraziko dira.

5. Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak Espainian matrikulatuta daudenean eta araudiak Enpresa Baimena edukitzea exijitzen dienean, haren zenbakia adieraziko da.

6. Sustapen Ministerioaren edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuaren baimena jaso ez duten auto-taxien kasuan, haren ordezkariaren zenbakia eta lizentzia eman duen udalerrria adieraziko dira.

7. Europar Batasuneko beste estatuetan matrikulaturiko ibilgailuei kasuan kasuko estatuak garraio jardueran aritzeko baimen administratiboa exijitzen badie, baimenaren zenbakia eta hura eman duen erakundearen izena adieraziko dira.

3. Aurkezten diren eskaerei erregistroko zenbaki bat emango zaie, eta aurreko apartatuan aipatu diren datuak behin bete ondoren, onuradunen erroldan inskribatuko dira, hala badagokie. Bestela, atzera botako dira.

4. Hasierako eskaeran adierazitako datuak edo bertan aipatutako agirietakoak aldatu nahi izanez gero, aldaketa paperean zein internet bidez aurkeztuko beharko da. Modu horretan ere jakinaraziko da itzulketarako eskubidea sortzen duen jarduera uzten dela edo jarduera horretan aritzeko ibilgailuak erabileraz kanpo geratu direla.

Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak ofizioz jardun ahal izango du inskribatutako onuradunen eta ibilgailuen erroldan zerbait aldatu edo baja emateari dagokionez.

4. artikulua. Gasolio profesionaleko txartelak baimentzea.

1. Zerga Administrazioak baimendu beharko ditu gasolio profesionaleko txartelak, betiere zergen itzulketaren xede den gasolioa erosi eta ordaintzeko berariazko baliabide gisa erabili daitezten. Horretarako, entitate emaileek eskatu behar dute gasolio profesionaleko txartelak txartelen erregistroan inskribatzeko, eta baimen zenbaki bat emango zaie Zerga Administrazioarekiko harremanetan erabiltzeko. Inskripzio hori baimena izango da entitate berak merkataritza izen berberarekin ematen dituen txartel guztietarako.

2. Eskaerak datu hauek jasoko ditu gutxienez:

- a) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - b) Entitateak ez badira Espainian egoiliarak eta EBko beste estatu batean egoitza edo establezimendu iraunkorra badute, entitateak Espainian duen ordezkariaren IFZ.
 - c) Txartelaren merkataritza izena.
3. Baimenak balioa izan dezan, gasolio profesionaleko txartelak eta berau kudeatzeko eta bere erabilera kontrolatzeko sistemak baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gasolio profesionaleko txartela ibilgailu baimenduaren titularraren izenean eman beharko da, eta bertan titularraren izena edo sozietate izena eta ibilgailu baimenduaren matrikula agertu beharko dira.

Txartel hori Europar Batasunean egoiliarak diren pertsona edo entitateen izenean emango da, barruko lurralde esparrukoak aparte utzita, betiere azken horretan establezimendu iraunkorrik ez badute eta alde zuzenetik erroldaturiko ibilgailu baten titularrak badira.

b) Txartela ematen duen entitateak kudeaketa sistema bat ezarri beharko du gasolio profesionaleko txartelarekin abonuaren kontra eginiko horniduren zerrendak aurkezteko, foru agindu honen 6.1 artikuluan xedatutako eran.

c) Gasolio profesionaleko txartelak ematen dituzten entitateek haiek baimentzeko obligazioak betetzen ez dituztenean, Zerga Administrazioak baliorik gabe utzi ahal izango du txartelen baimena, artikuluko honen 1. apartatuan aipatua.

5. artikulua. Gasolio txikizkako saltokietan hornitzea.

Ibilgailu baimenduek txikizkako saltokietan egiten dutenean gasolio horniketa, zergen itzulketak aitortu eta gauzatu ahal izateko ezinbestekoa izango da saltoki horietan hornitutako gasolioa gasolio profesionaleko txartelaren bidez ordaintzea.

Ondorio horietarako, ulertzen da onuradunek txartel hori gasolioa ordaintzeko erabiltzea itzulketarako eskatzeko aurkezten den zerga aitortzea dela.

Gasolio profesionaleko txartela ordainbide gisa onartzen duten instalazioen titularrak behartuta egongo dira txartelak ematen dituzten entitateei foru agindu honen 5. artikuluko b), c), d), e), f) eta g) letretan aipatzen den informazioa adieraztera erreferentzia aldi bakoitzean eginiko hornidura bakoitzari buruz.

6. artikulua. Zergen itzulketarako eskubidea duten horniduren zerrenda.

Txartelak ematen dituzten entitateek horniduren informazioa helaraziko diote zerga Administrazioari.

Txartelak ematen dituzten entitateek, haietariko bakoitzarengatik, honako hau adierazi beharko dute hornidura bakoitzerako:

- a) Egindako hornidura islatzen duen kontabilitateko erregistroaren banakako identifikadorea edo, hala bada, eginiko doiketa positibo edo negatiboarena.
- b) Zer txikizkako saltzailerentzako kontura egiten den hornidura. Txikizkako Saltzailerentzako Identifikazio Kodea adieraziko da (aurrerantzean TSK).
- c) Ibilgailu baimenduaren matrikula.
- d) Titularraren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).
- e) Horniduraren data eta ordua.
- f) Hornituriko erregai litroak.

g) Erregai mota, baldin eta urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak, gasolinaren, gasolioaren, fuelolioaren eta petrolioaren gas likidotuaren zehaztapenak ezarri eta bioerregai -batzuen erabilera arautzekoak, 8.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko bada. Erregai mota hori foru agindu honen 1. artikuluko 15. apartatuan ezarritakoari jarraikiz adieraziko da.

7. artikulua. Gasolioa norbere kontsumorako instalazioetan hornitzea.

Norbere kontsumorako instalazioen titularrak foru agindu honen 3. artikuluan aipatutako erroldan sarturik badaude eta instalazio horietan horniketa leku bat baldin badute erositako gasolioaren kontsumo propiorako, foru agindu honen 2. artikuluko 9. apartatuan jasotako eran, honako baldintzak bete beharko dituzte itzulketa lortzeko:

1. Establezimendua Gipuzkoan badago, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskaliterako eta Finantzatarako Departamentuaren erregistroan inskribatzea, uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuak, Zerga Berezien Erregelamendua onartu zuenak, 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Kontabilitate sistema informatiko bat edukitzea, salmenta aparatuekin integratua, Fiskaliterako eta Finantzatarako Departamentuak onetsia, instalazioa Gipuzkoan dagoenean. Kontabilitate horrek instalazioetan jasotako gasolioaren mugimendua adierazi beharko du eta baliagarria izan beharko du hornidura bakoitzaren datu zehatzak lortzeko, foru agindu honen 6. artikuluan ezartzen duenaren arabera. TSK kodea aipatu beharrian, Jarduera eta Establezimendu Kodea jarriko da. Kontabilitate sistema horrek gutxienez datu hauek jaso beharko ditu:

a) Karguan adieraziko da erabilera orokorreko zenbat gasolio jaso den une bakoitzean eta zein datatan jaso den. Era berean, hornitzailearen izena edo sozietate izena eta haren IFZ edo, kasua balitz, JEK kodea ere jarriko dira. Orobat, erabilera orokorreko gasolioaren zirkulazioa norbere kontsumorako instalazioraino lagundu duen zirkulazio agiriaren erreferentzia ere adieraziko da.

b) Datan instalazioaren titularraren ibilgailu baimenduei egindako hornidurak edo depositu-betetze guztiak idatziko dira, haien matrikula eta foru agindu honen 6. artikuluan aipatzen diren bestelako datuak ere adierazita. Hori bai, TSK kodearen ordez norbere kontsumorako instalazioari dagokion JEK kodea jarriko da.

3. Mota honetako instalazioen titularrek erreferentzia aldi bakoitza amaitu ondorengo hogeita bost eguneko epean aurkeztuko dute horniduren zerrenda, internet bidez.

8. artikulua. Norbere kontsumorako instalazioetan egindako gasolio horniduren zerrenda: Formatu elektronikoa eta zerrenda hori bide telematikoz aurkezteko prozedura onartzea.

1. Onarturik geratzen da «Norbere kontsumorako instalazioetan egindako gasolio horniduren zerrenda» izeneko formatu elektronikoa, instalazio horien onuradun titularrek egindakoena.

2. Aurreko apartatuan aipatutako zerrenden aurkezpen telematikoa prozedura honi jarraikiz egingo da:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskaliterako eta Finantzatarako Departamentuak zerbitzari bat jarri du aitortzaileen esku interneten. Norbere kontsumorako instalazioetan egindako gasolio horniduren zerrenda bide telematikoz aurkezteko esteka aurkitu daiteke bertan. Zerbitzu horretan sartzeko, aitortzaileak Departamentuaren atariak interneten duen helbidearekin konektatu behar du, eta igorri beharreko horniduren zerrenda aukeratu. Zerrenda horretan datu hauek jasoko dira:

1. IFZ: 9 karaktere.
2. Zerga ekitaldia: Zerrenda egiteko aintzat hartzen den urteko lau zifrak.
3. Epealdia: 2 karaktere (zenbaki bat hiruhilekoa adierazteko eta gero T letra).

b) Egindako hornidura bakoitzeko, foru agindu honen 6. artikuluan aipatzen den informazioa aurkeztuko da, TSK kodea izan ezik, haren ordezkari kontsumorako instalazioari dagokion JEK kodea jarriko baita.

c) Ondoren, zerrenda igoerriko da nabigatzailean aldeztatik instalatutako ziurtagiria aurkeztean sorturiko sinadura digitala erabiliz.

d) Aurkezleak baimena baldin bada zerrendak hirugarren pertsonen ordezkari gisa aurkezteko, sinadura bakarra beharko da, ziurtagiriari dagokiona.

e) Zerrenda onartzen bada, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuan eskumena duen bulegoak balioztatuta bueltatuko du pantailan aitortzea, hamasei karaktereko kode elektronikoa batez baliatuta, zein egun eta zein orduan aurkeztu den ere adieraziz.

Aitortzea errefusatzeko bada, aurkitutako akatsak azalduko dira pantailan. Kasu horretan, akatsak zuzendu beharko dira eta horniduren zerrenda berriro aurkeztu.

9. artikulua. Egindako horniduren kuotak itzultzea.

1. Hiruhileko natural bakoitzaren amaieran, eta aurkeztutako zerrendak aintzat hartuta, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuan eskumena duen bulegoak, bidezkoa iriziz gero, erabakiko du prozedura honen xede diren zergen kuotak itzultzea, kopurua onuradunak erroldan inskribatzeko eskaeran adierazitako kontura transferituta.

2. Itzulketa kalkulatzeko, Hidrokarburoen gaineko Zergaren eta Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren itzulketa tasak aplikatuko dira, hain zuzen ere, foru agindu honen 2.14 artikuluan aipatutakoak, hornidura egin den egunean indarrean zirenak.

10. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

1. Urte naturala amaitu ondorengo lehen hogeita bost egunen barruan, itzulketarako eskubidea duen onuradunak urteko aitortzen bat aurkeztu beharko dio Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuari, honek aurrez erabakitako moduan. Aitortzen horretan adierazi beharko da zenbat kilometro egin dituen aitortzen den urteko urtarrilaren 1era arte eta abenduaren 31ra arte, aurreko urtean onuradunen erroldan inskribatuta izan den bere titularitateko ibilgailu bakoitzak. Takografoa erabili behar duten ibilgailuetan hortik lortuko da datu hori.

2. Ibilgailuak ez badira izan onuradunen jabetzakoak ekitaldi oso batean, zerrenda hori bakarrik haien titularitatearen egiazko denborari egokituko zaio.

11. artikulua. 20/1998 Foru Dekretuaren 46. artikuluan ageri den NC kode baten erreferentzia eguneratzea.

20/1998 Foru Dekretuaren 46.1.g).2 artikuluan NC 3824.90.99 kodeari egiten zaion erreferentzia NC 3824.90.98 kodeari egindakoa dela ulertuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Ogasuneko zuzendari nagusia gaitzea.

Ogasuneko zuzendari nagusia gaiturik geratzen da foru agindu honetan jasotakoa gauzatu eta betetzeko behar diren xedapen edo jarraibideak eman ditzan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Baldintzak betetzeko epea eta itzulketarako eskubidearen iraupena.

Foru agindu honetan arautzen diren itzulketen onuradunak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako gasolio erosketen gaineko zergen itzulketara biltzen badira, 2007ko martxoaren 31 arte izango dute foru agindu honetan aurreikusi diren baldintzak eta eginbeharrak betetzeko.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera txikizkako saltokietan eginiko gasolio hornidurek kuoten itzulketarako eskubidea sortuko dute, baldin eta gasolioa erabili duten titularrak eta ibilgailuak 2007ko martxoaren 31 baino lehen inskribatu badira foru agindu honetan jasotakoaren arabera, erabilitako ordainbideek, gasolioa hornitu den unean, foru agindu honen 4.3.a) artikuluko baldintzak bete badituzte eta 2007ko martxoaren 31 baino lehen baimendu badira.

Halaber, norbere kontsumorako instalazioetan 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako hornidurek itzulketarako eskubidea sortuko dute, baldin eta instalazio horien titularrek, lehen aipatu den epea amaitu aurretik, foru agindu honetan ezarritako baldintzak eta eginbeharrak betetzen badituzte.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2007ko urtarrilaren 22a.—Juan Jose Mujika Aginagalde, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatua.

(442) (1091)

